

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2008/48/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko apirilaren 23koa, kontsumorako kreditu-kontratuei buruzkoa eta Kontseiluaren 87/102/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/48/CE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2008, relativa a los contratos de crédito al consumo y por la se deroga la Directiva 87/102/CEE del Consejo» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 133/66, 2008/5/22koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## ZUZENTARAUAK

**2008/48/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2008ko apirilaren 23koa**

**kontsumorako kreditu-kontratuei buruzkoa eta Kontseiluaren 87/102/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(2)</sup> aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura <sup>(3)</sup> bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Kontseiluaren 87/102/EEE Zuzentarauak —1986ko abenduaren 22koa, estatu kideek kontsumorako kredituei buruz dituzten xedapenak (lege-, erregelamendu- nahiz administrazio-mailakoak) bateratzeari buruzkoa <sup>(4)</sup>—, kontsumorako kreditu-kontratuei aplikatu beharreko arau batzuk finkatzen ditu Erkidegorako.

(2) 1995ean Batzordeak txosten bat aurkeztu zuen 87/102/EEE Zuzentarauaren aplikazioari buruz eta kontsulta egin zien gaiarekin zerikusia zuten aldeei. 1997an, 1995eko txostenari emandako erantzunei buruzko txosten laburtua aurkeztu zuen Batzordeak. 1996an, beste txosten bat osatu zuen 87/102/EEE Zuzentarauaren aplikazioari buruz.

(3) Txostenetan eta kontsultetan agerian gelditu zenez, artean alde handia zegoen estatu kideek pertsona fisikoentzako kredituei buruz zituzten legeetan, kontsumorako kredituei zegokienez bereziki. Izan ere, 87/102/EEE Zuzentaraua jaso duten lege nazionalak aztertuta ikusi denez, 87/102/EEE Zuzentarauaz gain estatu kideek beste babes-tresna batzuk erabiltzen dituzte, estatuetako egoera juridiko eta ekonomikoen artean dauden aldeak direla eta.

(4) Estatu kideen egoeren eta legeen artean dauden desberdintasun horien ondorioz, mailegu-emaileen lehia gorabeherak gertatzen dira Erkidegoaren barruan, eta barne-merkatuaren funtzionamendua galarazten du horrek, estatu kideek finkatutako nahitaezko xedapenak 87/102/EEE Zuzentaruaren finkatutakoak baino zorrotzagoak diren kasuetan. Horrekin batera, kontsumitzaileek mugaz gaindiko kontsumorako kreditura jotzeko aukerak murriztu egiten dira, halako kredituak gero eta erabilgarriago dauden arren. Gainera, gorabehera eta murrizpen horiek eragina izan dezakete ondasun eta zerbitzuen eskarian.

(5) Azken urteotan nabarmen aldatu dira kontsumitzaileei eskainitako eta haien erabilitako kredituak. Kreditu-tresna berriak sortu dira, eta haien erabilera garatzen ari da oraindik. Indarrean dauden xedapenak aldatzea eta, behar izanez gero, haien aplikazio-eremua zabaltzea komeni da, beraz.

---

(1) C 234 EO, 2003/09/30ekoa, 1. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2004/04/20koa (C 104 E EO, 2004/04/30ekoa, 233. or.), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2007/09/20koa (C 270 E EO, 2007/11/13, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Erabakia, 2008/01/16koa (*Egunkari Ofizialean* oraindik argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2008/04/07koa.

(3) L 42 EO, 1987/12/12koa, 48. or. Azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/7/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (L 101 EO, 1998/04/01ekoa, 17. or.)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(6) Itunarekin bat etorritz, barne-merkatuak barne-mugarik gabeko esparrua izan behar du, eta merkantzia eta zerbitzuen joan-etorri askea eta finkatzeko askatasuna bermatu behar dira bertan. Ezinbestekoa da barne-mugarik gabeko esparruaren barruan kreditu-merkatu gardenagoa eta eraginkorragoa garatzea, mugaz gaindiko jarduerak garatzeko.

(7) Kontsumorako kredituen esparruan ondo dabilen barne-merkatu bat sortzea ahalbidetzeko, Erkidegoan esparru bateratua sortu behar da funtsezkoak diren zenbait alorretan. Kontsumorako kredituen merkaturia etengabe aldatzen dela eta Europako herritarrak batetik bestera gero eta gehiago ibiltzen direla kontuan izanda, etorkizunera egokitutako Erkidego-mailako arau batzuk behar dira, sortzen diren kreditu-aukeretara erraz egokitzeko modukoak eta estatu kideei arauok malgutasunez aplikatzeko aukera ematen dietenak, kontsumorako kredituei buruzko legeria moderno bat finkatzearen.

(8) Kontsumitzaileen konfiantza bermatzearen, merkatuak behar besteko babes-maila eman behar die. Hala, kreditu-eskaintzen zirkulazio askea baldintza onenetan egiten dela ziurtatu behar da, kreditua eskaintzen nahiz eskatzen dutenei dagokienez, estatu kide bakoitzaren egoera berezia kontuan hartuta betiere.

(9) Bateratzeak erabatekoa izan behar du, Erkidegoko kontsumitzaile guztien interesek babes egokia eta parekoa dutela ziurtatzeko eta benetako barne-merkatua sortzeko. Alde horretatik, estatu kideek ezin diete Zuzentarau honetakoez bestelako xedapenei eutsi edo berriak onartu. Murrizketa hori Zuzentaruaren xedapen bateratuak daudenean aplikatuko da bakarrik, halere. Xedapen bateraturik ez badago, estatu kideek askatasuna izango dute beren estatu-mailako arauak eusteko nahiz berriak onartzeko. Hala, zerbitzu-emaile edo saltzaileen eta mailegu-emaileen erantzukizun solidarioari buruz estatu-mailako xedapenak onartu edo lehendik dituztenei eutsi ahal izango diete estatu kideek. Era berean, kontsumitzaileek kreditu-kontratua bukatzeko eskubidea gauzatu gero, ondasunak saltzeko nahiz zerbitzuak emateko kontratuaren amaierari buruz estatu-mailako xedapen berriak onartu nahiz lehendik dauzkaten eutsi ahal izango diete estatu kideek. Horretarako, estatu kideei gutxienez epe bat finkatzeko aukera eman behar zaie mailegu-emaileak dirua itzultzeko eskatzen duenetik kreditua berez itzuli behar den arte.

(10) Zuzentarau honetan jasotako definizioek finkatzen dute bateratzearen irismena. Zuzentarau honetako xedapenak aplikatzeko beharra, definizioei dagokien aplikazio-eremuaren arabera izango da, beraz. Dena den, Zuzentarau hau gorabehera, eta Erkidegoko zuzenbideari jarraiki, Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpoko beste alderdi batzuei dagozkien xedapenak aplikatu ahal izan behar dituzte estatuek. Hortaz, estatu kideek Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpoko kreditu-kontratuei buruz lehendik dauzkaten arauak eutsi nahiz arau berriak onartu ahal izango dituzte: 200 eurotik beherako edo 75.000 eurotik gorako kreditu-kontratuei buruzko arauak, esate baterako. Bestalde, estatu kideek Zuzentarau honetako xedapenak aplikatu ahal izango dizkiete Zuzentarau honetan kreditu lotuen kontratuei buruz emandako definizioarekin bat ez datozen kredituei ere. Hala, kreditu lotuen kontratuei buruzko xedapenak aplikatu ahal izango dira ondasuna hornitzeko nahiz zerbitzuak emateko kontratuaren zati bat finantzatzeko kreditu-kontratuetan.

(11) Zuzentarau honetako xedapen batzuk bakarrik aplikatzen zaizkien kreditu-kontratu zehatzen kasuan, estatu kideek ezin dute onartu Zuzentarau honetako beste xedapen batzuk garatzen dituen estatu-mailako araurik. Dena den, estatu kideek askatasuna izango dute kreditu-kontratu horiek beren zuzenbidean arautzen jarraitzeko, Zuzentarau honetan bateratu gabe gelditutako alderdietan.

(12) Mota jakin bateko zerbitzuak nahiz ondasunak etengabe emateko kontratuetan (halakoetan, kontsumitzaileak kuota bat ordaintzen du aldiro-aldi, prestazioak irauten duen bitartean) desberdintasun handiak aurkitzen ditugu Zuzentarau honetan araututako kreditu-kontratuen aldean, bai kontratatzaileei dagokienez, bai modalitatei nahiz eragiketarako egiteko moduari berari dagokienez. Hori dela eta, zehaztu beharra dago Zuzentarau honen ondorioetarako halako kontratuak ez direla hartzen kreditu-kontratutzat. Kontratu horien artean daude hileroko kuoten bidez ordaintzen diren aseguru-kontratuak.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(13) Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko kreditu-kontratu jakin batzuei: ordainketa geroratuko zordunketa-txartelei, adibidez. Halakoetan, kreditua hiru hilabeteren buruan itzuli behar da, eta gutxieneko gastu batzuk baino ez dira ordaindu behar.

(14) Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo utzi behar dira higiezin baten gaineko hipoteka baten bidez bermatutako kredituak, halakoak oso bereziak direlako. Bestalde, Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo utzi behar dira lursailak nahiz eraikitako edo eraikitzeo dauden eraikinen gaineko jabetza-eskubideak eskuratzeko edo haiei eusteko finantzaziora bideratutako kreditu-kontratuak. Nolanahi ere, ez dira Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo utziko lehendik dagoen higiezin bat berritzeko edo haren balioa handitzeko helburuz emandako kredituei dagozkien kontratuak.

(15) Zuzentarau honetako xedapenak mailegu-emailea pertsona fisikoa nahiz juridikoa izan aplikatu behar dira. Halere, Zuzentarau honek ez du mugatuko kontsumorako kredituak bakarrik pertsona juridikoei edo bakarrik pertsona juridiko batzuei emateko estatuak duten eskubidea.

(16) Zuzentarau honetako xedapen jakin batzuk beren jarduera komertzial, enpresarial nahiz juridikoan, ordain baten truke, kontsumorako kredituak aurkezten eta proposatzen dituzten, kontsumitzaileei kreditu-kontratuak sinatu aurreko izapideetan lagundu eta mailegu-emailearen izenean kontsumitzaileekin kreditu-kontratuak sinatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei (kreditu-bitartekariei) aplikatu behar zaizkie. Kreditu-produktuak sustatzeko (kreditu-txartelak, adibidez) beren izena erabiltzen uzten duten erakundeak, eta beren kideei produktu horiek gomendatzen dizkietenak, ez dira kreditu-bitartekarizat hartuko Zuzentarau honen ondorioetarako.

(17) Kreditu-bitartekariak kontsumitzaileekin dituzten betebeharrak batzuk baino ez ditu arautzen Zuzentarau honek. Horren ondorioz, estatu kideek askatasuna izango dute kreditu-bitartekariei dagozkien betebeharrak eusteko eta berriak onartzeko: kreditu-bitartekariak zerbitzuak eskatu dizkien kontsumitzaile batengandik ordaina jasotzeko baldintzak arautu ahal izango dituzte, adibidez.

(18) Kontsumitzaileek babestuta egon behar dute jardun desleial eta iruzurtien kontra, mailegu-emaileak emandako informazioari dagokionez bereziki. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/29/EE Zuzentarauari jarraiki —2005eko maiatzaren 11koa, enpresek barne-merkatuko beren kontsumitzaileekiko erlazioetan egindako jardun desleialei buruzkoa (merkataritza-jardun desleialei buruzko Zuzentaraua) <sup>(1)</sup>—. Dena den, Zuzentarau honetan komeni da onartzea kreditu-kontratuak eta kontsumitzaileek eskaintza desberdinak alderatu ahal izateko haiei eman beharreko oinarritzko informazioaren zenbait osagaiei buruzko xedapen bereziak. Informazio hori modu argi, zehatz eta nabarmenean eman behar da, adibide adierazgarriren bat erabiliz. Kredituaren zenbateko osoa, hau da, kontsumitzaileen esku jarritako zenbateko guztien batura, adierazterik ez dagoenean, gehienezko zenbatekoa adierazi beharko da, kreditu-kontratuari jarraiki, kontsumitzaileak funtsak erabiltzeko gehienezko kopuru bat duen kasuetan bereziki. Gehienezko zenbateko horretan adierazi beharko da kontsumitzailearen esku jar daitekeen gehienezko kreditua. Bestalde, estatu kideek eskubidea izaten jarraituko dute kredituaren kostuari buruzko informaziorik ematen ez duen publizitateari buruzko estatu-mailako baldintzak arautzeko.

(19) Kontsumitzaileek erabaki bat hartzeko garaian xehetasun guzti-guztiak jakin ditzaten, kontratua sinatu aurretik informazio egokia jaso behar dute, eta informazio hori berekin eramateko aukera izan behar dute, kredituaren baldintzak, kostuak eta beren gain hartuko dituzten betebeharrak lasai aztertzeko. Ahalik eta gardentasun handiena lortu eta eskaintzak alderatu ahal izateko, informazio horretan kredituari dagokion urteko tasa baliokidea zehaztu beharko da bereziki. Erkidego osoan modu berean kalkulatu da tasa hori. Fase honetan, tasa adibide baten bidez baino ematerik ez dagoenez, adibide horrek adierazgarria izan beharko du. Adibide horretan, oinarritzat hartuko dira dagokion kontratu-motarako emandako kredituaren batez besteko iraupena, zenbateko osoa eta, hala badagokio, eskuratutako ondasunak. Adibide adierazgarria aukeratzean, aintzat hartu beharko da kreditu-kontratu

---

(1) L 149 EO, 2005/06/11koa, 22. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

jakin batzuek merkatu zehatz batean duten maiztasuna ere. Zor-tasa, eperako ordainketen maiztasuna eta interesen kapitalizazioa finkatzeko, dagokion kontsumorako krediturako erabili ohi duten kalkulu-metodo bera erabili behar dute mailegu-emaileek.

(20) Kontsumitzaileak kredituagatik guztira ordaindu beharreko kostuan gastu guztiak jaso behar dira, honako hauek barne: interesak, komisioak, zergak, kreditu-bitartekarien ordainsariak eta kreditu-kontratuagatik kontsumitzaileak ordaindu beharreko gainerako gastuak, notarioaren gastuak izan ezik. Mailegu-emaileak dauzkan gastuen zenbateko erreala objektiboki ebalua daiteke, arreta profesionalari buruzko betekizunak kontuan hartuta.

(21) Kreditu-kontratuan jasotako erreferentziazko tasan izandako aldaketaren arabera aldiro-aldiro berrikusten den zor-tasa duten kreditu-kontratuak ez dira zor-tasa finkoko kreditu-kontratutzat hartuko.

(22) Kreditu-kontratu delata eta mailegu-emaileek kontsumitzaileei banku-kontu batzuk irekitzeko edo beste zerbitzu osagarri batzuetarako nahiz banku-kontu edo zerbitzu osagarri horiei dagozkien ordainak nahiz gastuak ordaintzeko kontratuak sinatzeko eskatzea debekatzen duten estatu-mailako xedapenei eusteko edo halakoak onartzeko askatasuna izango dute estatu kideek. Eskaintza konbinatu horiek baimentzen dituzten estatu kideetan, kontsumitzaileei xehetasun guztien berri eman beharko zaie kreditua eskuratzeko edo eskaintako baldintzetan eskuratzeko nahitaezkoak diren zerbitzu osagarrien kreditu-kontratu egin aurretik. Zerbitzu osagarri horien gastuak kredituaren kostu osoan sartu beharko dira edo, gastu horien zenbatekoa alde aurretik finkatzerik ez dagoenean, kontsumitzaileek halakoen berri jaso behar dute kontratua sinatu aurreko fasean. Zuzenean nahiz beste inoren bidez kontsumitzaileari eskaintako zerbitzu osagarri horien kostua mailegu-emaileak badakiela pentsatu behar da, non eta prezioa kontsumitzaileen ezaugarri zehatzen edo egoera bereziaren araberakoa ez den.

(23) Dena den, kreditu-kontratu mota jakin batzuetan, eta kontsumitzaileak behar bezala babesteko baina mailegu-emaileei nahiz kreditu-bitartekariari baldintza neurrigaberik ez ezartzeko, mugatu egin behar dira Zuzentarauak finkatzen dituen informazio-eskakizunak, kontratu-mota horien izaera berezia kontuan hartuta.

(24) Kontsumitzaileei xehetasun guztiak eman behar zaizkie kontratua sinatu aurretik, kreditua saltzeko garaian kreditu-bitartekari batek parte hartu ala ez. Horrenbestez, eta arau orokor gisa, kontratua sinatu aurretiko informazio-eskakizunak kreditu-bitartekariari ere aplikatu behar zaizkie. Dena den, kreditu-bitartekari gisa beste inoren ordeztu ditudun ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileak ez dira legez behartuta egongo kontratua sinatu aurretik informazioa ematera, Zuzentaru honetan agindutako moduan. Adibidez, ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileak beste inoren ordeztu kreditu-bitartekari gisa dihardutela ulertuko da beren bitartekaritza-lan hori beren jardura komertzial, enpresarial nahiz profesionalaren zeregin nagusia ez bada. Kasu horietan, kontsumitzaileek behar bezala babestuta jarraituko dute, kontratua sinatu aurretik xehetasun guztiak jasotzen dituztela ziurtatu behar baitute mailegu-emaileek, bai bitartekariaren bidez, mailegu-emaileak eta bitartekariak hala erabakiz gero, bai beste edozein bide egoki erabiliz.

(25) Kreditu-kontratu sinatu aurretik mailegu-emaileek kontsumitzaileei nahitaez bete beharreko eskaintza bat aurkezteko betebeharra finkatu ahal izango dute estatu kideek. Eskaintza horretan, mailegu-emaileak eskaintza hori noiz arte bete beharko duen zehaztu beharko da, halaber.

(26) Estatu kideek neurri egokiak hartu beharko dituzte kreditu-erlazioko fase guztietan arduraz jokatzeko delata bultzatzeko, betiere kreditu-merkatuaren berezitasunak kontuan izanda. Kontsumitzaileei xehetasunak eta prestakuntza ematea eta ez ordaintzeak nahiz zor handiegia egiteak izan litzakeen arriskuez ohartaraztea izan liteke neurri horietako bat, esate baterako. Kreditu-merkatua hedatzen ari denez, mailegu-emaileek ez litzukete maileguak arduragabeki edo mailegu-hartzailearen kaudimena ebaluatu gabe eman behar. Estatu kide guztiak kontrol egokiak aplikatu beharko litzukete halakoak saihesteko, eta beharrezko neurriak hartu beharko litzukete, halakorik gertatuz gero, mailegu-emaileak zigortzeko. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/48/EE Zuzentarauari —

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2006ko ekainaren 14koa, kreditu-erakundeen jardueraren eta urtealdien berri jasotzeari buruzkoa <sup>(1)</sup>— jarraiki, mailegu-emaileek kreditu-arriskuei buruz esandakoa alde batera utzi gabe, kontsumitzaile bakoitzaren kaudimena kontrolatzeaz arduratu behar dute mailegu-emaileek. Horretarako, kreditu-kontratua prestatzean ez ezik, harreman komertzialak irauten duen denbora osoan zehar kontsumitzaileak emandako informazioa erabili ahal izango dute. Estatu kideetako agintariek jarraibide eta orientazio egokiak eman ahal izango dizkiete mailegu-emaileei. Kontsumitzaileek, bestalde, zuhur jokatu behar dute eta kontratuko betebeharrak bete behar dituzte.

(27) Kontratua sinatu aurretik xehetasunak jaso arren, eskainitako produktu guztien artean beren beharretara eta beren finantza-egoerara ongien egokitzen den kreditu-kontratua erabakitzeko laguntza behar izan dezakete kontsumitzaileek. Hori dela eta, estatu kideek ziurtatu beharko dute mailegu-emaileek kontsumitzaileei eskainitako kreditu-produktuen artean erabakitzeko laguntza ematen dietela. Behar izanez gero, kontratua sinatu aurretiko informazioa eta proposatutako produktu bakoitzaren oinarriko ezaugarriak modu pertsonalizatuan azaldu ahal izango zaizkie kontsumitzaileei, beren egoera ekonomikoaren gaineko ondorioak zein izan daitezkeen uler dezaten. Kontsumitzaileei laguntza eman behar hori bitartekariei ere esleia dakieke, behar izanez gero. Kontsumitzaileei eman beharreko xehetasunak noiz eta nola eman behar zaizkien zehaztu ahal izango dute estatu kideek, kontuan hartuta kreditua eskaintzen deneko egoera berezia, kontsumitzaileek behar duten laguntza eta kreditu-produktu bakoitzaren berezitasunak.

(28) Kontsumitzaile baten finantza-egoera ebaluatzeko, mailegu-emaileek aukera izan behar dute dagozkien datu-baseak kontsultatzeko. Egoera juridiko nahiz errearen arabera, kontsulta horien edukia aldatu egin daiteke. Mailegu-emaileen arteko lehia ez desitxuratzeko, kontsumitzaileei buruzko datu-base pribatu nahiz publikoetan sartzeko aukera izan behar dute finkatuta ez dauden estatu kideetan ere, estatu horietako mailegu-emaileen aldean mugarik jarri gabe.

(29) Kreditu-eskaera bat atzera botatzeko erabakia datu-base batean egindako kontsulta batean oinarritzen bada, mailegu-emaileak horren berri eman beharko dio kontsumitzaileari, kontsultatutako datu-basearen xehetasunekin batera. Dena den, Erkidegoko legetako beste xedapen batzuek (kapitalak garbitzeari nahiz terrorismoa finantzatzeari buruzkoak, adibidez) hori debekutzen duten kasuetan, mailegu-emaileak ez du informazio hori eman beharko. Era berean, informazio hori ez da eman beharko ordena publikoko nahiz segurtasun publikoko helburuen (delitu penalak prebenitu, ikertu, hauteman eta zigortzea, adibidez) kontra jotzen duenean.

(30) Zuzentarau honek ez ditu arautzen kreditu-kontratuen balioari dagozkion kontratuen zuzenbideko alderdiak. Horrenbestez, Erkidegoko zuzenbidearekin bat datozen estatu-mailako xedapenak mantendu nahiz berriak onartu ahal izango dituzte estatu kideek. Kreditu-kontratuaren eskaintzari dagokion araubide juridikoa finkatzeko eskumena daukate estatu kideek, eskaintza noiz egin behar den eta mailegu-emailearentzat bete beharrekoa noiz arte izango den zehazteari dagokionez bereziki. Zuzentarau honetan araututako kontraturik sinatu aurretik eman beharreko informazioa jakinaraztearekin batera egiten bada eskaintza hori, mailegu-emaileak kontsumitzaileari eman beharreko informazio osagarri guztia bezalaxe, dokumentu bereizi batean jaso beharko da, kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatuari erantsita.

(31) Kontsumitzaileak kontratuari jarraiki dauzkan eskubide eta betebeharrak jakin ahal izan ditzan, beharrezko informazioa argi eta garbi jaso beharko da kontratuan.

(32) Gardentasun osoa bermatzeko, zor-tasari buruzko informazioa eman beharko zaio kontsumitzaileari, bai kontratua sinatu aurretiko fasean, baita kontratua sinatzeko unean ere. Kontratu-erlazioak irauten duen bitartean, zor-tasa aldarokorren egondako gorabeheren eta aldaketa horiek ordainketetan duten eraginaren berri eman beharko zaie kontsumitzaileei. Horrek ez du eraginik izango kontsumitzaileei eman beharreko informazioarekin zerikusirik ez duten eta ordainketei, zor-tasei eta kredituarekin zerikusia duten bestelako baldintza ekonomikoek dagokienez

---

(1) L 177 EO, 2006/06/30ekoa, 1. or. Azkenik 2008/24/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (L 81 EO, 2008/03/20koa, 38. or.).

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

bestelako aldaketen baldintzak eta ondorioak finkatzen dituzten estatu-mailako xedapenetan. Adibide batzuk: mailegu-emaileak zor-tasa aldatzeko eskumena horretarako arrazoi sendoak dauden kasuetan bakarrik izango duela dioten xedapenak edo zor-tasa nahiz kredituarekin zerikusia duen beste edozein baldintza ekonomiko aldatuz gero kontsumitzaileak kontratua amaitzeko eskubidea duela diotenak.

(33) Kontratugileek eskubidea izan behar dute, ohiko prozedura erabiliz, kreditu-kontratu mugagabe bati amaiera emateko. Bestalde, kreditu-kontratuan hala jasotzen den kasuetan, mailegu-emaileak kontsumitzaileari ukatu ahal izango dio kreditu-kontratu mugagabe baten kontura diru-kopuru batzuk eskuratzeko eskubidea, objektiboki justifikatutako arrazoiak egonez gero. Arrazoi horien adibide batzuk: kreditua baimenik gabe nahiz iruzurra egiteko erabiltzen deneko susmoa edota kontsumitzaileak kreditua itzultzeko betebeharrari erantzuterik ez izateko arriskua nabarmen handitzea. Zuzentarau honek ez du eraginik kontratua urratzeagatik kontratugileek kreditu-kontratu amaitutzat emateko duten eskubidea arautzen duten kontratuei buruzko estatu bakoitzeko zuzenbideko arauetan.

(34) Antzeko esparruetan atzera egiteko dauden aukerak bateratzearen, zigorrik jarri gabe eta justifikaziorik aurkeztu behar izan gabe atzera egiteko eskubidea finkatu behar da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/65/EE Zuzentarauan —2002ko irailaren 23koa, kontsumitzaileentzako finantza-zerbitzuak urrutira merkaturatzeari buruzkoa<sup>(1)</sup>—.

(35) Kontsumitzaile batek merkantzia batzuk eskuratu baditu kreditu-kontratu baten bidez (eperako erosketa baten bidez, errentamendu-kontratu baten bidez edo erosteko beharrari lotutako finantza-errentamenduko kontratu baten bidez bereziki), eta kontratu hori atzera botatzea erabakitzen badu, merkantzien itzulketa eta horri lotutako xehetasunak arautzen dituzten estatu kideetako arauak alde batera utzi gabe ulertuko da Zuzentarau hau.

(36) Kasu batzuetan, Estatu legeetan dagoeneko zehaztuta dago funtsak ezin direla kontsumitzaileen esku jarri epe jakin bat bete aurretik. Kasu horietan, gerta liteke kontsumitzaileak ziurtatu nahi izatea erositako ondasun edo zerbitzuak alde aurretik jasoko dituela. Hori dela eta, kreditu-kontratu lotuetan, salbuespen gisa baldintza hau ezar dezakete estatu kideek: kontsumitzaileak ondasunak eta zerbitzuak alde aurretik jaso nahi dituela berariaz adierazten badu, funtsak kontsumitzailearen esku jarri arteraino mugatzea atzera egiteko epea gauzatzeko eskubidea.

(37) Kreditu-kontratu lotuetan elkar-mendekotasuna egoten da ondasun edo zerbitzuak eskuratzearren eta horretarako egindako kreditu-kontratuaren artean. Hortaz, Erkidegoko zuzenbidea oinarritzat hartuta erosketa-kontratu batean atzera egiteko eskubidea gauzatzen duen kontsumitzaileak kreditu-kontratu lotuaren bidez behartuta egoteari utzi behar dio. Horrek ez du eraginik izango kreditu-kontratu lotuei aplikatu beharreko estatu-mailako arauetan kontsumitzaileak bere estatuko zuzenbidean babestuta atzera botatzeko eskubidea gauzatzen badu edo erosketa-kontratu bat ezeztatzen bada. Era berean, horrek ez du eraginik izango estatu-mailako xedapenek kontsumitzaileei onartzen dizkieten eskubideetan. Halakoei jarraiki, ezin izango da konpromiso loteslerik edo inolako ordainketarik egon kontsumitzaile baten eta ondasun- edo zerbitzu-hornitzaile baten artean, harik eta kontsumitzaileak ondasunen nahiz zerbitzuen erosketa finantzatzeko kreditu-kontratu sinatzen duen arte.

(38) Baldintza jakin batzuetan, erosketa-kontratuarekin arazorik sortuz gero, kontsumitzaileek aukera izan behar dute mailegu-emailearen aurka jotzeko eskubidea gauzatzeko. Dena den, mailegu-emailearen aurka jo ahal izan aurretik, kontsumitzaileek hornitzailearen kontra zenbateraino eta zein baldintzetan jotzea izango duten finkatu beharko dute estatu kideek, eta, mailegu-emailearen aurka jotzeko eskubideaz baliatu aurretik, kontsumitzaileek hornitzailearen aurkako helegitea jarri behar duten zehaztu beharko dute. Zuzentarau honek ez dizkie kontsumitzaileei kenduko zerbitzuen saltzaile edo hornitzailearen eta mailegu-emailearen erantzukizun solidarioa arautzen duten estatu-mailako xedapenek onartzen dizkieten eskubideak.

---

(1) L 271 EO, 2002/10/09koa, 16. or. Azkenik 2007/64/EE Zuzentaruak aldatutako Zuzentaru (L 319 EO, 2007/12/05ekoa, 1. or.).

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(39) Kreditu-kontratuan adostutako dataren aurretik bere betebeharrak kitatzeko aukera eman behar zaie kontsumitzaileei. Itzulketa aurreratuz gero (zenbateko osoa nahiz zati bat), itzulketa aurreratu horrek zuzenean eragindako gastuei aurre egiteko konpentsazioa eskuratzeko eskubidea izango dute mailegu-emaileek, baina horrek eragiten dien aurrezpena ere kontuan hartu beharko dute. Halere, konpentsazioa kalkulatzeko metodoa finkatzeko garaian, hainbat printzipio hartu behar dira kontuan. Mailegu-emaileak jaso beharreko kalte-ordaina kalkulatzeko moduak gardena eta kontsumitzaileak ulertzeko modukoa izan behar du, kontratua sinatu aurretiko fasetik bertatik eta kreditu-kontratua gauzatzen den bitartean. Horrekin batera, kalkulua egiteko metodoak mailegu-emaileak erraz aplikatzeko modukoa eta eskumeneko agintariak dagozkien kontrolak erraz egiteko modukoa izan behar du. Ondorioz, eta kreditu-kontsumoak, beren iraupena eta zenbatekoa direla eta, epe luzerako finantzazio-mekanismoen bidez finantzatzen ez direnez, kopuru orokor bat finkatuko da gehieneko konpentsazio gisa. Kontsumorako kredituen izaera berezia islatzen du ikuspegi horrek, baina ez du esan nahi epe luzerako finantzazio-mekanismoen bidez finantzatutako beste produktu batzuekin (interes finkoko hipoteka-maileguak, esate baterako) beste ikuspegi bat erabiliko ez denik.

(40) Mailegu-emaileak itzulketa aurreratuari dagokion konpentsazioa eskatzeko baldintza hau finkatu ahal izango dute estatu kideek: hamabi hilabetean itzultako zenbatekoak estatu kideek finkatutako muga gainditzea. Muga hori finkatzean, estatu kideek kontuan hartu beharko dute beren merkatuan eskaintzen diren kontsumorako kredituen batez besteko zenbatekoa, esate baterako. Muga horrek ezin izango du 10.000 euro baino handiagoa izan.

(41) Mailegu-emaileak kreditu-kontratu bati jarraiki dituen eskubideak lagatzeak ezin du kontsumitzaileen egoera ahuldu. Kreditu-kontratua beste inori lagaz gero, komeni da kontsumitzaileari horren xehetasunak ematea. Dena den, hasierako mailegu-emaileak, titular berriarekin bat etorritik, kontsumitzailearen aurrean mailegu-emaile gisa jokatzeko jarraitzen badu, lagapenari buruzko informazioak ez du interes berezirik izango kontsumitzailearentzat. Horrenbestez, kasu horietan gehiegizkoa izango litzateke Erkidego-mailan ezartzea kontsumitzaileari lagapenaren berri emateko betebeharra.

(42) Estatu kideek askatasuna izan behar dute komunikatzeko modu kolektiboak finkatzen dituzten estatu-mailako xedapenei eusteko nahiz halakoak onartzeko, bankuen nahitaezko administrazio-kitapenetan gertatu ohi diren titulazioen nahiz aktiboen kitapenaren moduko eragiketa konplexuen eraginkortasuna bermatzeko hori beharrezkoa den kasuetan.

(43) Barne-merkatua egotea eta ondo funtzionatzea lortzeko, eta kontsumitzaileek Erkidego osoan babes-maila handia dutela bermatzeko, Erkidego osoko urteko tasa baliokideei buruzko informazioa alderagarria dela ziurtatu behar da. 87/102/EEE Zuzentarauan urteko tasa baliokidea kalkulatzeko formula matematiko bakarra finkatzen bada ere, ehuneko hori ez da Erkidego osoan guztiz parekagarria oraindik. Zenbait estatu kideek kostu-faktore desberdinak hartzen dituzte aintzat, ehuneko hori kalkulatzeko. Zuzentzarau honen bidez, beraz, argi eta garbi zehaztu behar da zenbatekoa izango den kreditu batek kontsumitzaileentzat izango duen kostu osoa.

(44) Merkatuaren gardentasuna eta egonkortasuna bermatzeko, eta bateratze handiagoa gertatu bitartean, estatu kideek ziurtatu beharko dute mailegu-emaileak arautzeko eta ikuskatzeko neurri egokiak hartzen direla.

(45) Zuzentzarau honek oinarritzko eskubideak errespetatzen ditu eta bereziki Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean jasotako printzipioak hartzen ditu kontuan. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna aplikatuz, datu pertsonalak babesteko arauak, jabetza-eskubidea, bereizketarik eza, familia-bizitzaren babesa eta kontsumitzaileen babesa guztiz errespetatzen direla bermatu nahi da Zuzentzarau honen bidez.

(46) Zuzentzarau honen helburua da estatu kideek kontsumorako kredituei buruz dituzten xedapenetako (lege-, erregelamendu- nahiz administrazio-mailakoak) zenbait alderditarako arau komunak finkatzea, baina estatu kideek helburu horiek beren kasa bakarrik lortzerik ez dutenez, eta, ondorioz, helburu horiek Erkidego-mailan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatuko 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Zuzentzarau hau ez da joaten helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago.



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(47) Estatu kideek erabaki behar dituzte Zuzentarau honi jarraiki beren estatuetan onartutako xedapenak urratzeagatik ezarri beharreko zigorrak, eta zigor horiek aplikatzen direla ziurtatu beharko dute. Zigor batzuk nahiz beste batzuk aukeratzea estatu kideen esku gelditzen bada ere, zigorrek eraginkorrak, neurritsuak eta eragozleak izan beharko dute.

(48) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko xedapenak Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin —1999ko ekainaren 28koa, Batzordearen esku utzitako betearazpen-eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituena <sup>(1)</sup>— bat etorritz hartu behar dira.

(49) Batzordeari urteko tasa baliokidea kalkulatzeko kasu osagarriak finkatzeko eskumenak eman behar zaizkio bereziki. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(50) «Legeak hobeto ematea» izenburuko Erakunde arteko Hitzarmeneko <sup>(2)</sup> 34. puntuari jarraiki, ahal den neurrian, Zuzentarau honen eta transposizio-neurrien arteko bat-etortzea jasotzen duten koadroak finkatu eta argitaratu behar ditu estatu kide bakoitzak, bere nahiz Erkidego osoaren mesederako.

(51) Horrenbestez, kontsumorako kredituen sektoreak izandako bilakaera dela eta 87/102/EEE Zuzentaruaren egin beharreko aldaketa ugarien ondorioz, eta Erkidegoko legeen argitasunaren mesedetan, Zuzentarau hori indargabetu eta beste honekin ordezkatuko da.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

## I. KAPITULUA

### **HELBURUA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

#### *1. artikulua*

##### **Helburua**

Kontsumorako kreditu-kontratuei buruzko xedapenei (lege-, erregelamendu- nahiz administrazio-mailakoak) dagozkien zenbait alderdi bateratzea da Zuzentarau honen helburua.

#### *2. artikulua*

##### **Aplikazio-eremua**

---

(1) L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.).

(2) C 321 EO, 2003/12/31koa, 1. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Zuzentzarau hau kreditu-kontratuei aplikatuko zaie.

2. Zuzentzarau honetatik kanpo geldituko dira honako kontratu hauek:

a) hipoteka batekin edo estatu kide batek ondasun higiezinatarako erabilitako antzeko bermeren batekin bermatutako kreditu-kontratuak;

b) eraikita nahiz eraikitzeke dauden lursailen gaineko jabetza-eskubidea eskuratzeko edo eskubide horri eusteko xedea duten kreditu-kontratuak;

c) 200 eurotik beherako eta 75.000 eurotik gorako kreditu-kontratuak;

d) ez kontratuan bertan ez bestelako aparteko kontraturen batean, kontratuaren xedea erosteko betebeharra sortzen ez duten errendamendu-kontratuak eta finantza-errendamenduko kontratuak; betebeharrak hori dagoela ulertuko da mailegu-emaileak bere kasa hori erabakiz gero;

e) hilabeteko epean itzuli behar diren eta zorpekoa egiteko erraztasunak ematen dituzten kreditu-kontratuak;

f) interesik eta bestelako gasturik gabe emandako kreditu-kontratuak eta kreditua hiru hilabeteren buruan itzuli beharra dakarten kreditu-kontratuak, halakoetan gutxieneko gastu batzuk baino ordaindu behar ez badira;

g) enpresaburu batek bere langileei diru-laguntza gisa eta interesik gabe edo merkatuaren azpitik dauden urteko tasa baliokideekin emandako eta kaleko jende arruntari ematen ez zaizkion kreditu-kontratuak;

h) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/39/EE Zuzentzarauko —2004ko apirilaren 21ekoa, finantza-tresnen merkaturak buruzkoa<sup>(1)</sup>— 4. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki, inbertsio-enpresekin sinatutako kreditu-kontratuak eta, 2006/48/EE Zuzentzarauko 4. artikuluari jarraiki, kreditu-erakundeekin sinatutakoak, inbestitzaile batek 2004/39/EE Zuzentzarauko I. eranskineko C atalean aipatutako tresnaren batekin edo gehiagorekin eragiketa bat egin ahal izan dezan, inbertsio-enpresak nahiz kreditua ematen duen erakundeak eragiketaren parte hartzen duten kasuetan;

i) epaitegian nahiz erakunde publikoren baten aurrean adostutako hitzarmen bati jarraiki sinatutako kreditu-kontratuak;

j) zor baten ordainketa geroratua (eta gasturik gabea) egiteko kreditu-kontratuak;

k) kontratua sinatzeko kontsumitzaileek mailegu-emaileari ondasun bat segurtasun-berme gisa entregatu behar dioteneko eta kontsumitzaileen erantzukizuna soilik ondasun horretara mugatzen deneko kreditu-kontratuak;

l) jende-kopuru mugatu bati emandako maileguei dagozkien kreditu-kontratuak. Halakoak interes orokorrari buruzko lege-xedapen batzuei jarraiki ematen dira, merkatuan dagoenaren azpiko interes-tasan, interesik gabe edo merkaturakoa baino baldintza hobetan eta merkaturaren proposatutakoa gainditzen ez duen interes-tasa batean.

3. Kreditua zorpekoa sortzeko aukerarekin ematen denean, aldeztu aurretik eskatuta nahiz hiru hilabeteko epean itzultzeko, kreditu horiei dagozkien kontratuei aplikatuko zaizkie, bakarrik, 1-3 artikuluko, 4. artikuluko 1. paragrafoa, 4. artikuluko 2. paragrafoa a)-c) idatz-zatiak, 4. artikuluko 4. paragrafoa, 6-9. artikuluko, 10. artikuluko 1. paragrafoa, 10. artikuluko 4. paragrafoa, 10. artikuluko 5. paragrafoa, 12., 15. eta 17. artikuluko eta 19-31 artikuluko.

---

(1) L 145 EO, 2004/04/30ekoa, 1. or. Azkenik 2008/10/EE Zuzentzarauk aldatutako Zuzentzaraua (L 76 EO, 2008/03/19koa, 33. or.).

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4. Gainezkatzeko-kreditu-kontratuei, berriz, 1-3., 18., 20. eta 22-32 artikulua aplikatuko zaizkie bakarrik.

5. Jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten erakundeek sinatutako kreditu-kontratuen kasuan, 1-4. artikulua, 6., 7. eta 9. artikulua, 10. artikuluko 1. paragrafoa, 10. artikuluko 2. paragrafoa a)-h) eta l) idatz-zatiak eta 11., 13. eta 16. artikulua bakarrik aplikatzea erabaki ahal izango dute estatu kideek:

a) erakundea kideen mesederako sortua izatea;

b) irabazirik ez sortzea kide ez direnentzat;

c) estatuko legerian jasotako helburu sozial bat izatea;

d) kideen aurrezkiak bakarrik jasotzea eta kudeatzea eta kreditu-iturriak ematea haiei, eta

e) merkatuko urteko interes-tasa baliokidearen azpiko tasa batean edo estatuko zuzenbidean finkatutako gehienezko mugaren azpiko tasa batean ematea kreditua,

kideak haiek bakarrik izatea: leku jakin batean bizi direnak edo han lan egiten dutenak, enplegu-emaile jakin baten jarduneko langileak nahiz langile erretirodunak, edota kideen artean lotura komun bat egoteko estatuko zuzenbidean baldintza gisa finkatutako beste eskakizunen bat betetzen dutenak.

Era honetako erakunderen batek sinatutako kreditu-kontratuak Zuzentarau hau betetzetik salbuetsi ahal izango dituzte estatu kideek, erakunde horrek sinatutako kreditu-kontratu guztien balio oso txikia bada erakundea finkatuta dagoen estatu kidean sinatutako kreditu-kontratu guztien balio osoaren aldean eta era horretako erakundeek estatu kide horretan sinatutako kreditu-kontratuen balio osoa estatu horretan sinatutako kreditu-kontratu guztien balio osoaren % 1 baino txikiagoa bada.

Estatu kideek urtero aztertuko dute salbuespen horiek aplikatzeko baldintzak oraindik betetzen ote diren eta, baldintza horiek betetzeari utzi zaiola ikusiz gero, salbuespena ezabatzeko neurriak hartuko dituzte.

6. Estatu kideek erabaki dezakete mailegu-emaileak eta kontsumitzaileak ordainketa geroratuari nahiz dirua itzultzeko metodoei buruzko hitzarmenak sinatzea aurreikusten duten kreditu-kontratuei 1-4. artikulua, 6., 7. eta 9. artikulua, 10. artikuluko 1. paragrafoa, 10. artikuluko 2. paragrafoa a)-i) eta r) idatz-zatiak, 10. artikuluko 4. paragrafoa, 11., 13. eta 16. artikulua eta 18-32. artikulua bakarrik aplikatzea, kontsumitzaileek dagoeneko hasierako kreditu-kontratuari dagokion kopuru bat ordaindu gabe izanik, baldintza haiek betetzen direnean:

a) hitzarmen horien bidez epaitegira joatea galaraztea ez-ordainketen ondorioz, eta

b) kontsumitzaileari ez aplikatzea hasierako kreditu-kontratuan jasotakoak baino baldintza okerragoak.

Dena den, kontratua 3. paragrafoa aplikazio-eremuaren barruan badago, paragrafo horretan zehaztutako xedapenak bakarrik aplikatuko zaizkio.

### *3. artikulua*

#### **Definizioak**

Zuzentarau honen ondorioetarako, definizio haiek erabiliko dira:

a) «kontsumitzailea»: Zuzentarau honek araututako eragiketetan, bere jarduera komertzial nahiz profesioaletik kanpo jarduten duen pertsona fisikoa;

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- b) «mailegu-emaile»: bere jarduera komertzial nahiz profesionalari jarraiki kreditu bat ematen duen edo emateko konpromisoa hartzen duen pertsona fisiko nahiz juridikoa;
- c) «kreditu-kontratua»: mailegu-emaile batek kontsumitzaile bati kreditua emateko konpromisoa hartzen dueneko kontratua. Kreditu hori eman daiteke ordainketa geroratu, mailegu nahiz antzeko ordainketa-moduen bidez. Halako kontratuetatik kanpo gelditzen dira kontsumitzaileak ondasun edo zerbitzu batzuk modu mailakatuan jasotzeko, mota bereko ondasunak hornitzeko nahiz zerbitzuak emateko kontratuak;
- d) «zorpekoa egiteko aukera»: mailegu-emaileak kontsumitzaileak kontu korrontean duen saldoa gainditzen duten funtsak haren esku uzteko sinatutako kreditu-kontratu berezia;
- e) «gainezkatzea»: mailegu-emaileak kontsumitzaileak kontu korrontean duen saldoa gainditzen duten funtsak haren esku jartzten ditueneko isilbidez onartutako nahiz adostutako zorpekoa;
- f) «kreditu-bitartekaria»: mailegu-emaile gisa jardun ez eta, bere jarduera komertzial nahiz profesionalari jarraiki eta ordainsari baten truke (dirutan nahiz adostutako beste onura ekonomikoren baten bidez), honakoren bat egiten duen pertsona fisiko nahiz juridikoa:
- i) kontsumorako kreditu-kontratuak aurkeztu edo eskaintzea,
- ii) kontsumitzaileei kreditu-kontratua sinatu aurretiko (i) puntuan aipatutakoez bestelakoak) izapideetan laguntzea, edo
- iii) kontsumitzaileekin kreditu-kontratuak sinatzea, mailegu-emailearen izenean;
- g) «kredituak kontsumitzailearentzat duen kostu osoa»: gastu guztiak, honako hauek barne: interesak, komisioak, zergak, kreditu-bitartekarien ordainsariak eta kontsumitzaileak kreditu-kontratuarengatik ordaindu beharreko gainerako gastuak (mailegu-emaileak ezagutzen dituenak), notarioaren gastuak izan ezik; atal honetan sartzen da kreditu-kontratuari dagozkion zerbitzu osagarrien kostua ere (aseguru-primak bereziki), kreditua lortzeko edo eskaintako baldintzetan eskuratzeko zerbitzuok kontratatzea nahitaezkoa baldin bada;
- h) «kontsumitzaileak zor duen zenbateko osoa»: kredituaren zenbateko osoaren eta kredituak kontsumitzailearentzat duen kostu osoaren batura;
- i) «urteko tasa baliokidea»: kredituak kontsumitzailearentzat duen kostu osoa, emandako kredituaren zenbateko osoaren urteko ehunekoan adierazita, eta 19. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kostuak gehituta, hala badagokio;
- j) «zor-tasa»: erabilitako kredituaren zenbatekoari urtean aplikatutako interes-tasa, ehuneko finko nahiz aldakor gisa adierazia;
- k) «zor-tasa finkoa»: mailegu-emaileak eta kontsumitzaileak zor-tasa bakarra adostu dezakete kreditu-kontratuan kontratu horrek irauten duen denbora guztirako, edo zor-tasa desberdinak adostu ditzakete aldi jakinetarako, ehuneko finko espezifiko bat besterik ez erabiliz. Kreditu-kontratuan zor-tasa finko guztiak finkatzen ez badira, zor-tasak kreditu-kontratua sinatzean adostutako ehuneko finko espezifiko baten bidez bakarrik finkatzen diren aldi zehatzetarako soilik hartuko da zor-tasa hori.
- l) «kredituaren zenbateko osoa»: kreditu-kontratu baten barruan, kontsumitzailearen esku jarritako kopuru guztien gehienezko zenbatekoa edo batura;
- m) «euskarri iraunkorra»: kontsumitzaileari pertsonalki ematen zaion informazioa hari dagozkion xedeetara egokitutako denbora-tarte batean gordetzeko, aurrerago erraz berreskuratzeko eta gordetako informazioa berdin-berdin kopiatzeko aukera ematen duen edozein tresna;

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

n) «kreditu-kontratu lotua»: baldintza hauek betetzen dituen kontratua:

i) ondasun zehatz batzuk hornitzeko nahiz zerbitzu zehatz batzuk emateko kontratua finantzatzeko bakarrik erabiltzea kontratua, eta

ii) kontratu biek batasun komertziala osatzea ikuspegi objektibo batetik. Ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzuaren hornitzaileak kontsumorako kreditua finantzatzen dutenean batasun komertziala dagoela ulertuko da, ondasun edo zerbitzu hori beste inork finantzatzen badu, mailegu-emailea ondasun- nahiz zerbitzu-hornitzailearen bitartekaritza-lanaz baliatzen bada kreditu-kontratu bat prestatzeko nahiz sinatzeko, edo eskainitako ondasun edo zerbitzu zehatza kreditu-kontratuan berariaz aipatzen badira.

## II. KAPITULUA

### **KREDITU-KONTRATUA SINATU AURRETIKO INFORMAZIOA ETA EGIN BEHARREKOAK**

#### *4. artikulua*

#### **Publizitatean jarri beharreko oinarritzko informazioa**

1. Interes-tasaren bat edo kontsumitzaileak kredituarengatik ordaindu beharreko kostuari buruzko edozein kopuru adierazten duten kreditu-kontratuei buruzko publizitatean, artikuluko honetan adierazitako oinarritzko informazioa jaso beharko da nahitaez.

Lehen paragrafoan adierazitako zentzuan, ez da betebeharrak hori aplikatuko kredituak kontsumitzaileari sortzen dion edozein kosturi dagokion zenbatekorik edo interes-tiporik adierazten ez duten kreditu-kontratuen publizitatean urteko tasa baliokidea jarri beharra dagoen kasuetan.

2. Oinarritzko informazio horrek honako xehetasun hauek eman behar ditu modu argi, zehatz eta nabarmenean, eta adibide adierazgarriren bat erabiliz:

a) zor-tasa finko nahiz aldakorra, kredituak kontsumitzailearentzat duen kostu osoaren barruan sartzen diren errekarguei buruzko informazioarekin batera;

b) kredituaren zenbateko osoa;

c) urteko tasa baliokidea; 2. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kreditu-kontratuen kasuan, estatu kideek erabaki ahal izango dute urteko tasa baliokidea emateko betebeharra ez finkatzea;

d) kreditu-kontratuaren iraupena, hala badagokio;

e) ondasun nahiz zerbitzu zehatz baten ordainketa geroratu gisako kredituen kasuan, eskurako prezioa eta egin litezkeen aurrerakinen zenbatekoa, eta

f) hala badagokio, kontsumitzaileak zor duen zenbateko osoa eta epeka ordaindutakoa.

3. Kreditu-kontratuari lotutako zerbitzu osagarri bati dagokion kontratua sinatzea nahitaezkoa bada kreditua eskuratzeko edo eskainitako baldintzetan eskuratzeko, eta zerbitzu horren kostua aldeztatik aurretik zehazterik ez badago, betebeharrak hori argi eta garbi eta modu nabarmenean adierazi beharko da, urteko tasa baliokidearekin batera.

4. Artikuluko honetako xedapenak gorabehera, 2005/29/EE Zuzentarauan agindutakoa ere bete beharko da.

#### *5. artikulua*

#### **Kontratua sinatu aurretiko informazioa**

2008/48/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 133/66, 2008/5/22koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Behar besteko aurrerapenez, eta kontratu bati edo kontratu-eskaintza bati jarraiki inolako betebeharririk hartu baino lehen, eskaintza desberdinak alderatzeko eta kreditu-kontratu bat sinatzeari buruz erabaki informatua hartzeko behar duen informazioa eman beharko diote kontsumitzaileari mailegu-emaileak eta, hala badagokio, kreditu-bitartekariak, mailegu-emaileak eskaintako kreditu-baldintzetan eta, hala badagokio, kontsumitzaileak adierazitako lehentasunak eta emandako informazioa oinarritzat hartuta. II. eranskinean jasota dagoen kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatuaren bidez emango da paperean nahiz beste edozein euskarri iraunkorretan emandako informazio hori. Mailegu-emaileak paragrafo honetako informazio-betebeharrak eta 2002/65/EE Zuzentarauko 3. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan finkatutakoak bete dituela ulertuko da, kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatua emanez gero.

Informazio horretan datu hauek zehaztu behar dira:

- a) kreditu-tasa;
- b) mailegu-emailearen nortasuna eta helbide geografikoa, esku hartzen duen kreditu-bitartekariaren nortasunarekin eta helbide geografikoarekin batera, halakorik baldin badago;
- c) kredituaren zenbateko osoa eta funtsak eskuratzeko baldintzak;
- d) kreditu-kontratuaren iraupena;
- e) ondasun edo zerbitzu baten ordainketa geroratuari dagozkion kredituen nahiz kreditu-kontratu lotuen kasuan, produktu edo zerbitzua zein den eta eskurako prezioa;
- f) zor-tasa eta tasa hori aplikatzeko baldintzak eta, edukiz gero, hasierako zor-tasari aplikatu beharreko erreferentziatzeko tasa edo indizeak, bai eta zor-tasa aldatzeko prozedurak, baldintzak eta denbora-tarteak ere. Egoera desberdinetan zor-tasa desberdinak aplikatzen badira, goian aipatutako informazioa eman beharko da aplikatzen diren tasa guztiei buruz;
- g) urteko tasa baliokidea eta kontsumitzaileak zor duen zenbateko osoa, tasa hori kalkulatzeko erabilitako hipotesi guztiak jasotzen dituen adibide adierazgarri batekin batera; kontsumitzaileak nahiago duen kredituaren osagai baten edo gehiagoren berri ematen badio mailegu-emaileari (kreditu-kontratuaren iraupenaren eta zenbateko osoaren berri, adibidez), mailegu-emaileak aintzat hartu beharko du hori; kreditu-kontratuan funtsak eskuratzeko modu desberdinak baldin badaude aukeran, eta modu horiei mailegu-tasa desberdinak aplikatzen bazaizkie, kasu horretan, eta mailegu-emaileak I. eranskineko b) idatz-zatiko II. tarteetan aipatzen den kasuari heltzen badio, mota horretako kreditu-kontratuen kasuan, urteko tasa baliokidea funtsak eskuratzeko beste mekanismo batzuei aplikatutakoa baino handiagoa izan daitekeela jakinarazi beharko du;
- h) kontsumitzaileak egin beharreko ordainketen zenbatekoa, kopurua eta aldizkakotasuna, eta itzulketari dagokionez, zordun desberdinei egozten zaizkien ordaindu gabeko saldoei ordainketak egozteko hurrenkera;
- i) hala badagokio, kontu baten nahiz gehiagoren mantentze-gastuak, ordaintzeko eta kreditua eskuratzeko eragiketarako erregistratzeko kontuok beharrezkoak izanez gero, kontua irekitzea aukerakoa den kasuetan izan ezik, dirua ordaintzea eta dirua eskuratzeko aldi berean egiteko aukera ematen duen ordainketa-bide bat erabiltzeari dagozkion gastuak eta kreditu-kontratuak eragindako gainerako gastuak eta gastu horiek aldatzeko baldintzak;
- j) hala badagokio, kreditu-kontratu sinatzeagatik kontsumitzaileak notarioarekin izan ditzakeen zorrak;
- k) kreditu-kontratuari lotutako zerbitzu osagarriak (aseguru-poliza bereziki) kontratatzeko betebeharra, zerbitzu horiei dagokien kontratu sinatzea nahitaezkoa bada kreditua eskuratzeko edo kreditua eskaintako baldintzetan eskuratzeko;

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

l) atzerapenei dagokien interes-tasa eta ez-ordaintzei dagozkien gastuak egokitzeko modalitateak, halakorik egonez gero;

m) ez-ordaintzeak dakartzan ondorioei buruzko ohar bat;

n) hala dagokionean, eskatutako bermeak;

o) atzera egiteko eskubiderik dagoen ala ez;

p) dirua aurretiaz itzultzeko eskubidea eta, hala badagokio, mailegu-emaileak konpentsazio bat jasotzeko duen eskubideari eta, 16. artikuluari jarraiki, konpentsazio hori finkatzeko moduari buruzko informazioa;

q) 9. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritz, kontsumitzailearen kaudimena ebaluatzeko datu-baserik kontsultatuz gero, kontsumitzaileak kontsulta horren emaitzaren berri berehala eta dohainik jasotzeko duen eskubidea;

r) eskatuz gero, kontsumitzaileak kreditu-kontratuaren proiektuaren kopia bat dohainik jasotzeko eskubidea. Eskaera egiten den unean, mailegu-emailea kontsumitzailearekin kreditu-kontratua sinatzeko prest ez badago ez da xedapen hori aplikatuko, eta

s) hala badagokio, mailegu-emaileak kontratua sinatu aurretiko informazioa noiz arte bete beharko duen.

Dokumentu bereizi batean jasoko da mailegu-emaileak kontsumitzaileari eman diezaiokeen gainerako informazio guztia. Dokumentu hori kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatuari erantsi ahal izango zaio.

2. Dena den, 2002/65/EE Zuzentarauko 3. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako moduan, komunikazioa ahozko telefonia bidez egiten den kasuetan, Zuzentaru horretako 3. paragrafoko 3. pasarteko b) idatz-zatiko bigarren gidoiarekin bat etorritz, finantza-zerbitzuaren ezaugarri nagusien deskribapenean jaso beharko dira gutxienez artikuluko honetako 1) paragrafoko c), d), e), f) eta h) idatz-zatietan aipatzen diren elementuak, urteko tasa baliokidearekin batera, eta guztia adierazgarri batez eta kontsumitzaileak zor duen zenbateko osoaz lagunduta. 3. Kontsumitzaileak hala eskatuta, 1. paragrafoan aipatutako informazioa emateko aukerarik ematen ez duen urruneko komunikazio-bide bat erabiliz sinatu bada kontratua (2. paragrafoan azaldutako kasuan, bereziki), kontsumitzaileari kontratua sinatu aurretiko informazioa emateko kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatuaren formularioa erabiliko du mailegu-emaileak, kreditu-kontratua sinatu eta berehala.

4. Kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatuaz gain, kontsumitzaileari kreditu-kontratuaren proiektuaren kopia bat emango zaio dohainik, aldeztatik eskatuta. Eskaera egiten den unean, mailegu-emailea kontsumitzailearekin kreditu-kontratua sinatzeko prest ez badago ez da xedapen hori aplikatuko.

5. Kontsumitzaileek egindako ordainketek kredituaren zenbateko osoan dagokion amortizazioa sortu beharrean, kapitala kreditu-kontratuan finkatutako baldintzetan eta denbora-tarteetan berreratzen duten kreditu-kontratuen kasuan, 1. paragrafoari jarraiki kontratua sinatu aurretik eman beharreko informazioan argi eta garbi zehaztu beharko da kontratu horiek ez dutela kontratuari jarraiki eskuratu den kredituaren zenbateko osoa itzultzeko bermerik aurreikusten, berme hori ematen ez bada behintzat.

6. Estatu kideek zaindu beharko dute mailegu-emaileak eta, hala badagokio, kreditu-bitartekariak kontsumitzaileei proposatutako kreditu-kontratuak haien beharrei eta haien finantza-egoerari erantzuten dieten aztertu ahal izateko beharrezko azalpenak ematen dizkietela. Behar izanez gero, 1. paragrafoari jarraiki, kontratua sinatu aurretik emandako informazioa azalduko diete kontsumitzaileei, proposatutako produktuaren oinarriko ezaugarriekin eta kontratuek haiengan izan dezaketan eragin zehatzekin (kontsumitzaileak ez ordainduz gero izango lituzkeen ondorioak barne) batera. Laguntza hori emateko modua eta edukia zein laguntza eman behar duenaren nortasuna kreditu-kontratua eskaintzen deneko egoeraren, kredituaren hartzailearen nahiz eskaintako kreditu-motaren ezaugarri berezietara egokitu ahal izango dute estatu kideek.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## 6. artikulua

### **Kreditu-kontratu jakin batzuetan (zorpekoa sortzeko aukera ematen dutenak eta beste kontratu zehatz batzuk) kontratua sinatu aurretik eman beharreko informazioa**

1. Behar besteko aurrerapenez, eta, 2. artikuluko 3., 5. nahiz 6. paragrafoekin bat etorritik, kreditu-kontratu bati edo kreditu-kontratu baten eskaintza bati jarraiki inolako betebeharririk hartu baino lehen, eskaintza desberdinak alderatzeko eta kreditu-kontratu bat sinatzeari buruz erabaki informatua hartzeko behar den informazioa eman beharko diote kontsumitzaileari mailegu-emaileak eta, hala badagokio, kreditu-bitartekariak, mailegu-emaileak eskaintako kreditu-baldintzetan eta, hala badagokio, kontsumitzaileak adierazitako lehentasunak eta emandako informazioa oinarritzat hartuta.

Informazio horretan datu hauek zehaztu behar dira:

- a) kreditu-tasa;
- b) mailegu-emailearen nortasuna eta helbide geografikoa, esku hartzen duen kreditu-bitartekariaren nortasunarekin eta helbide geografikoarekin batera, halakorik baldin badago;
- c) kredituaren zenbateko osoa;
- d) kreditu-kontratuaren iraupena;
- e) zor-tasa; tasa hori aplikatzeko baldintzak, hasierako zor-tasari aplikatu behar zaizkion erreferentziarako tasa edo indizeak; kreditu-kontratu sinatzen denetik aplikatu beharreko errekarguak eta, hala badagokio, haiek aldatzeko baldintzak;
- f) urteko tasa baliokidea, hura kalkulatzeko erabilitako hipotesi guztiak aipatzen dituen adibide adierazgarri baten bidez azaldua;
- g) kreditu-kontratu amaitutzat emateko baldintzak eta prozedura;
- h) 2. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren kreditu-kontratuen kasuan, kontsumitzaileari edozein unetan kredituaren zenbateko osoa itzultzeko eskatu ahal izango zaiola dioen oharra;
- i) atzerapenei dagokien interes-tasa eta hura egokitzeko modalitateak, eta ez-ordaintzei dagokien gastuak, halakorik egonez gero;
- j) 9. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritik, kontsumitzailearen kaudimena ebaluatzeko datu-baserik kontsultatuz gero, kontsumitzaileak kontsulta horren emaitzaren berri berehala eta dohainik jasotzeko duen eskubidea;
- k) 2. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako kreditu-kontratuen kasuan, kontratu horiek sinatzen direnetik aplikatu daitezkeen gastuak eta, hala badagokio, gastu horiek aldatzeko baldintzak;
- l) hala badagokio, mailegu-emaileak kontratua sinatu aurretiko informazioa noiz arte bete beharko duen.

Informazio hori guztia paperean nahiz bestelako euskarri iraunkor batean eman beharko da, eta den-dena modu berean nabarmenduta jasoko da. III. eranskinean jasotako kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatuaren bidez eman ahal izango da. Mailegu-emaileak paragrafo honetako informazio-betebeharrak eta 2002/65/EE Zuzentarauko 3. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan finkatutakoak bete dituela ulertuko da, kontsumorako kredituei buruzko Europako informazio normalizatuaren emanez gero.

2. 2. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kreditu-kontratuen kasuan, urteko tasa baliokidea ez zehaztea erabaki ahal izango dute estatu kideek.



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

3. 2. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan aipatutako kreditu-kontratuen kasuan, artikuluko honetako 1. paragrafoari jarraiki kontsumitzaileari emandako informazioan xehetasun hauek jaso beharko dira, halaber:

- a) kontsumitzaileak egin beharreko ordainketen zenbatekoa, kopurua eta aldizkakotasuna, eta itzulketari dagokionez, zordun desberdinei egozten zaizkien ordaindu gabeko saldoei ordainketak egozteko hurrenkera;
- b) dirua aurretiaz itzultzeko eskubidea eta, hala badagokio, mailegu-emaileak konpentsazio bat jasotzeko duen eskubideari eta konpentsazio hori finkatzeko moduari buruzko informazioa.

Dena den, kreditu-kontratua 2. artikuluko 3. paragrafoaren aplikazio-esparruaren barruan badago, artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatutako xedapenak bakarrik aplikatu beharko dira.

4. Nolanahi ere, ahozko telefonia bidezko komunikazioen kasuan, eta kontsumitzaileak zorpekoa berehala izateko aukera eskatzen duenean, 1. paragrafoko c), e), f) eta h) idatz-zatietan adierazitako elementuak jaso beharko dira gutxienez finantza-zerbitzuaren ezaugarri nagusien deskribapenean. Gainera, 3. paragrafoan aipatzen diren kreditu-kontratuen kasuan, kreditu-kontratuaren iraupena zehaztu beharko da ezaugarri nagusien azalpenean.

5. 2. artikuluko 2. paragrafoko e) idatz-zatian finkatutako salbuespena gorabehera, estatu kideek artikuluko honetako 4. paragrafoko lehen esaldian jasotako baldintzak aplikatuko dituzte gutxienez zorpekoa sortzeko aukera ematen duten eta hilabeteko epean itzuli behar diren kreditu-kontratuetan.

6. 1-4. paragrafoetan aipatzen den informazioaz gain, 10. artikuluan aipatzen den informazioa ere zehaztu beharko da kreditu-kontratuaren proiektuaren kopian, hura aplikatzeko denean, eta alde zuzenetik eskatuta. Eskaera egiten den unean, mailegu-emaileak kontsumitzailearekin kreditu-kontratua sinatzeko prest ez badago, ez da xedapen hori aplikatuko.

7. Kontsumitzaileak hala eskatuta, 1. eta 3. paragrafoetan aipatutako informazioa emateko aukerarik ematen ez duen urruneko komunikazio-bide bat erabiliz sinatu bada kontratua (4. paragrafoan aipatutako kasuetan barne), kontratua sinatu eta berehala 1. eta 3. artikuluei jarraiki dituen betebeharrak bete beharko ditu mailegu-emaileak, eta kontratuari buruzko informazioa eman beharko du 10. artikuluekin bat etorritik, ahal duen neurrian.

#### *7. artikulua*

### **Kontratua sinatu aurretiko informazioa emateko salbuespenak**

5. eta 6. artikuluek ez zaizkie aplikatuko beste inoren ordezkari diren aldetik kreditu-bitartekari gisa bakarrik jarduten duten ondasun- nahiz zerbitzu-hornitzaileei. Horrek ez du eraginik izango, bi artikuluko horiei jarraiki, kontsumitzaileak kontratua sinatu aurretik jaso beharreko informazioa jasotzeko mailegu-emaileak dituen betebeharretan.

#### *8. artikulua*

### **Kontsumitzailearen kaudimena ebaluatzeko betebeharrak**

1. Kreditu-kontratua sinatu aurretik, estatu kideek zaindu beharko dute mailegu-emaileak kontsumitzailearen kaudimena ebaluatzen duela. Horretarako, behar izanez gero kontsumitzaileak emandako behar besteko informazioa hartuko da oinarritzat eta, hala badagokio, datu-baseak ere kontsultatuko dira. Mailegu-emaileak kontsumitzaileen kaudimena datu-base egoki baten arabera ebaluatu behar dutela dioten legeak dituzten estatu kideek betebeharrak horri eustea izango dute.

2. Kreditu-kontratua sinatu ondoren, aldeek kredituaren zenbateko osoa aldatzea adostuz gero, kredituaren zenbateko osoa nabarmen handitu aurretik, estatu kideek zaindu beharko dute mailegu-emaileak kontsumitzaileari buruz duen finantza-informazioa eguneratzen duela eta haren kaudimena ebaluatzen duela.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### III. KAPITULUA

#### **DATU-BASEETAN SARTZEA**

##### *9. artikulua*

#### **Datu-baseetan sartzea**

1. Estatu kide bakoitzak ziurtatu behar du beste estatu kideetako mailegu-emaileek beren herrialdean erabiltzen diren datu-baseetan sartzeko aukera dutela, kontsumitzaileen kaudimena ebaluatzeko. Datu-baseetan sartzeko baldintzek ezin dute inor baztertu.
2. Kreditu-eskaera bat atzera botatzeko erabakia datu-base batean egindako kontsulta batean oinarritzen bada, mailegu-emaileak horren berri eman beharko dio kontsumitzaileari berehala eta dohainik, kontsultatutako datu-basearen xehetasunekin batera.
3. Erkidegoko legeriako beste xedapen batek hori debekatzen ez badu edo ordena publikoko nahiz segurtasun publikoko helburuen kontra jotzen ez badu, informazio hori nahitaez eman beharko da.
4. Artikulu honek ez du eraginik izango Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentarauaren — 1995eko urriaren 24koa, pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datuon joan-etorri askeari dagokienez babesteari buruzkoa <sup>(1)</sup>— aplikazioan.

### IV. KAPITULUA

#### **KREDITU-KONTRATUEN INGURUKO ESKUBIDEAK ETA INFORMAZIOA**

##### *10. artikulua*

#### **Kreditu-kontratueta aipatu beharreko informazioa**

1. Kreditu-kontratuak paperean nahiz bestelako euskarri iraunkorren batean jaso behar dira. Kreditu-kontratuaren kopia bana jasoko dute kontratatzaileek. Artikulu honek ez du eraginik izango Erkidegoko zuzenbidearekin bat datozen kreditu-kontratuak sinatzearen balioari buruzko estatu-mailako bestelako arauekin.
2. Kreditu-kontratuan datu hauek zehaztu behar dira argi eta garbi:
  - a) kreditu-tasa;
  - b) kontratugileen nortasuna eta helbide geografikoa, kreditu-bitartekariaren nortasunarekin eta helbide geografikoarekin batera, halakorik baldin badago;
  - c) kreditu-kontratuaren iraupena;
  - d) kredituaren zenbateko osoa eta funtsak eskuratzeko baldintzak;
  - e) ondasun edo zerbitzu baten ordainketa geroratuari dagozkion kredituen edo kreditu-kontratu lotuen kasuan, produktu edo zerbitzua zein den eta eskurako prezioa;

---

(1) L 281 EO, 1995/11/23koa, 31. or. 1882/2003 (EE) Erregelamenduak (L 284 EO, 2003/10/31koa, 1. or.) aldatutako Zuzentaraua.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

f) zor-tasa eta tasa hori aplikatzeko baldintzak eta, edukiz gero, hasierako zor-tasari aplikatu beharreko erreferentziako tasa edo indizeak, bai eta zor-tasa aldatzeko prozedurak, baldintzak eta denbora-tarteak, eta, egoeraren arabera zor-tasa desberdinak aplikatzen badira, aplikatu beharreko tasa guztiei buruzko arestian aipatutako informazioa ere;

g) urteko tasa baliokidea eta kontsumitzaileak zor duen zenbateko osoa, kreditu-kontratua harpidetzeko garaian kalkulatuak; ehuneko hori kalkulatzeko erabilitako hipotesi guztiak aipatu behar dira;

h) kontsumitzaileak egin beharreko ordainketen zenbatekoa, kopurua eta aldizkakotasuna, eta itzulketari dagokionez, zordun desberdinei egozten zaizkien ordaindu gabeko saldoei ordainketak egozteko hurrenkerak;

i) iraupen finkoko kreditu-kontratu baten kapitala amortizatzen den kasuan, kontsumitzaileak kontu-laburpena dohainik jasotzeko duen eskubidea. Laburpen hori amortizazio-koadro gisa jaso behar du, aldeztatik eskatuta, edozein unetan kreditu-kontratuak irauten duen bitartean.

Amortizazio-koadroan xehetasun hauek jaso behar dira: zor diren ordainketak, zenbateko horiek ordaintzeko uneak eta baldintzak; aldiroko itzulketa bakoitzaren xehakapena, kapitalaren amortizazioarekin, zor-tipoaren arabera kalkulatuak eta, halakorik egonez gero, kostu osagarriak; interes-tasa finkoa ez bada edo kostu osagarriak kreditu-kontratuaren arabera alda badaitezke, amortizazio-koadroan argi eta garbi adierazi behar da koadroko datuak zor-tipoa edo kreditu-kontratuari jarraiki sortutako kostu osagarriak berriz ere aldatzen den arte bakarrik izango direla indarrean;

j) kapitala amortizatu gabe interesak edo errekaruak ordaindu behar izanez gero, interes zordunak eta horri lotutako gastu errepikariak nahiz errepikari ez direnak ordaintzeko baldintzak eta uneak;

k) hala badagokio, kontu baten nahiz gehiagoren mantentze-gastuak, ordaintzeko eta kreditua eskuratzeko eragiketarako erregistratzeko, kontua irekitzea aukerakoa den kasuetan izan ezik, dirua ordaintzea eta dirua eskuratzeko aldi berean egiteko aukera ematen duen ordainketa-bide bat erabiltzeari dagozkion gastuak, eta kreditu-kontratuak eragindako gainerako gastuak eta gastu horiek aldatzeko baldintzak;

l) kreditu-kontratua sinatzen denean aplikatu beharreko interes-tasa eta hura egokitze prozedurak eta, hala dagokionean, ez-ordaintzeagatik sortutako gastuak;

m) ez-ordaintzeak dakartzen ondorioei buruzko ohar bat;

n) hala dagokionean, notaritzako gastuen ordainketa arautzen duen adierazpena;

o) halakorik egonez gero, eskatutako berme eta aseguruak;

p) atzera egiteko eskubiderik dagoen ala ez eta hura gauzatzeko epea eta gainerako baldintzak, 14. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatiari jarraiki, kontsumitzaileak erabilitako kapitala eta dagozkion interesak eta eguneroko interesari dagozkion zenbatekoa ordaintzeko duen betebeharrari buruzko informazioa barne;

q) 15. artikuluari jarraiki sortutako eskubideei buruzko informazioa eta eskubide horiek gauzatzeko baldintzak;

r) dirua aurretiaz itzultzeko eskubidea, hori egiteko prozedura eta, hala badagokio, mailegu-emaileak konpentsazio bat jasotzeko duen eskubideari eta konpentsazio hori finkatzeko moduari buruzko informazioa;

s) kreditu-kontratuari amaiera emateko eskubidea gauzatzeko jarraitu beharreko prozedura;

t) kontsumitzaileak erreklamazioak nahiz helegiteak epaitegiz kanpo jartzeko prozedurarik dagoen ala ez eta, egonez gero, kontsumitzaileak halakoak erabiltzeko daukan bidea;

u) kontratuko gainerako baldintzak, hala badagokio;

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

v) eskumeneko ikuskapen-agintarien izena eta helbidea, hala badagokio.

3. 2. paragrafoko i) idatz-zatian aipatutako kasuan, mailegu-emaileak kontu-laburpena kontsumitzailearen esku jarri beharko du dohainik. Laburpen hori amortizazio-koadro gisa jaso beharko du, edozein unetan kreditu-kontratuak irauten duen bitartean.

4. Kontsumitzaileek egindako ordainketek kredituaren zenbateko osoan dagokion amortizazioa sortu beharrean, kapitala kreditu-kontratuan finkatutako baldintzetan eta denbora-tarteetan berreratzen duten kreditu-kontratuen kasuan, 2. paragrafoari jarraiki kontratua sinatu aurretik eman beharreko informazioan argi eta garbi zehaztu beharko da kontratu horiek ez dutela kreditu-kontratuari jarraiki eskuratu den kredituaren zenbateko osoa itzultzeko bermerik aurreikusten, berme hori ematen ez bada behintzat.

5. 2. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren eta zorpekoa sortzeko aukera ematen duten kreditu-kontratuen kasuan, argi eta garbi zehaztu behar dira datu hauek:

a) kreditu-tasa;

b) kontratatzaileen nortasuna eta helbide geografikoa, kreditu-bitartekariaren nortasunarekin eta helbide geografikoarekin batera, halakorik baldin badago;

c) kreditu-kontratuaren iraupena;

d) kredituaren zenbateko osoa eta funtsak eskuratzeko baldintzak;

e) zor-tasa eta tasa hori aplikatzeko baldintzak eta, edukiz gero, hasierako zor-tasari aplikatu beharreko erreferentziatzeko tasa edo indizeak, bai eta zor-tasa aldatzeko prozedurak, baldintzak eta denbora-tarteak, eta, egoeraren arabera zor-tasa desberdinak aplikatzen badira, aplikatu beharreko tasa guztiei buruzko arestian aipatutako informazioa ere;

f) urteko tasa baliokidea eta kredituak kontsumitzailearentzat izango duen kostu osoa, kreditu-kontratu harpidetzeko garaian kalkulatuak; ehuneko hori kalkulatzeko erabilitako hipotesi guztiak aipatu behar dira, 19. artikuluko 2. paragrafoarekin eta 3. artikuluko g) eta i) idatz-zatiekin bat etorritz; estatu kideek erabaki ahal izango dute urteko tasa baliokidea ez zehaztea;

g) kontsumitzaileari edozein unetan kredituaren zenbateko osoa itzultzeko eskatu ahal izango zaiola adierazteko oharra;

h) kreditu-kontratuan atzera egiteko eskubidea gauzatzeko jarraitu beharreko prozedura, eta

i) kreditu-kontratuak sinatzen diren unetik aplika daitezkeen gastuei buruzko informazioa eta gastu horiek aldatzeko baldintzei buruzkoa, horretarako aukera egonez gero.

#### *11. artikulua*

#### **Zor-tasari buruzko informazioa**

1. Zor-tasan aldaketarik eginez gero, horren berri emango zaie kontsumitzaileei paperezko dokumentu baten nahiz euskarri iraunkor baten bidez, aldaketa indarrean sartu baino lehen. Jakinarazpen horretan zehaztuko da zor-tasa berria indarrean sartu ondorengo ordainketen zenbatekoa eta, aldatuz gero, ordainketen kopurua eta maiztasuna.

2. Dena den, zor-tasaren aldaketa erreferentzia-tasaren aldaketa baten ondorioz gertatzen bada, kasu horretan 1. paragrafoan aipatzen den informazioa kontsumitzaileari aldiro-aldiro eman beharra adostu dezakete aldeek kreditu-kontratuan, baldin eta erreferentzia-tasa berria bide egokiak erabiliz jakinarazten bada eta horri buruzko informazioa mailegu-emailearen lokaletan ere eskuragarri baldin badago.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

#### *12. artikulua*

##### **Zorpekoa sortzeko aukera duten kreditu-kontratuei lotutako betebeharrak**

1. Zorpekoa sortzeko aukera duen kreditu-kontratu bat ematen bada, kontsumitzaileari honako hauen berri eman beharko zaio aldiro-aldiro paperean nahiz beste euskarri iraunkorren batean jasotako kontu-laburpen baten bidez:

- a) kontu-laburpena zein aldi zehatzi dagokion;
- b) eskuratu diren zenbatekoak eta zenbateko horiek zein datetan eskuratu diren;
- c) aurreko laburpenaren saldoa eta oraingoaren data;
- d) saldo berria;
- e) kontsumitzaileak egindako ordainketen data eta zenbatekoa;
- f) aplikatutako zor-tasa;
- g) aplikatutako errekarguak;
- h) ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa, halakorik egonez gero.

2. Aurreko guztiaz gain, zor-tipoak izandako gorakaden eta dagozkion aldaketak indarrean sartu aurretik ordaindu beharreko errekarguen berri eman behar zaio kontsumitzaileari, paperezko dokumentu baten nahiz bestelako euskarri iraunkor baten bidez. Dena den, zor-tasaren aldaketa erreferentzia-tasaren aldaketa baten ondorioz gertatzen bada, aldeek kreditu-kontratuan adostu dezakete kasu horretan zor-tasaren aldaketei buruzko informazioa kontsumitzaileari 1. paragrafoan adierazitako moduan eman behar zaiola, baldin eta erreferentzia-tasa berria bide egokiak erabiliz jakinarazten bada eta horri buruzko informazioa mailegu-emailearen lokaletan ere eskuragarri baldin badago.

#### *13. artikulua*

##### **Iraupen mugagabeko kreditu-kontratuak**

1. Kontsumitzaileek edozein unetan amaitu ahal izango dute iraupen mugagabeko kreditu-kontratu bat, ohiko prozedura erabiliz eta dohainik, aldeek horren berri emateko eperik adostu ez badute behintzat. Aldez aurretik jakinarazteko epeak ezin izango du hilabete baino luzeagoa izan.

Kreditu-kontratuan hala adostuz gero, iraupen mugagabeko kreditu-kontratu bat ohiko prozeduraren bidez amaitutzat jo ahal izango du mailegu-emaileak, kontsumitzaileari gutxienez bi hilabete lehenago jakinaraziz gero, paperean nahiz beste euskarri iraunkorren bat erabiliz.

2. Kreditu-kontratuan hala jasotzen den kasuetan, mailegu-emaileak kontsumitzaileari ukatu ahal izango dio iraupen mugagabeko kreditu-kontratu baten kontura diru-kopuru batzuk eskuratzeko eskubidea, objektiboki justifikatutako arrazoiak egonez gero. Kontratuaren amaieraren berri eman beharko dio mailegu-emaileak kontsumitzaileari, horretarako arrazoiak azalduz paperezko nahiz bestelako euskarri iraunkorren batean jasotako jakinarazpen baten bidez. Ahal dela, kontratua amaitu aurretik egin beharko du hori eta, beranduenez, hori gertatu eta berehala, Erkidegoko legeriako beste xedapen batek hori debekatzen ez badu edo ordena publikoko nahiz segurtasun publikoko helburuen kontra jotzen ez badu, behintzat.

#### *14. artikulua*

##### **Atzera egiteko eskubidea**

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Kontsumitzaileak 14 egun zibileko epea izango du kreditu-kontratu batean atzera egiteko, horretarako arrazoia azaldu behar izan gabe.

Atzera egiteko epe hori egun honetan hasiko da kontatzen:

a) kreditu-kontratua harpidetzeko egunean, edo

b) kontsumitzaileak kontratuaren baldintzak eta 10. artikuluan zehaztutako informazioa jasotzen duen egunean, egun hori paragrafo honetako a) idatz-zatian adierazitakoa baino geroago bada.

2. 3. artikuluko n) idatz-zatian definitutako kreditu-kontratu lotuen kasuan, Zuzentarau hau indarrean sartzen denean, funtsak kontsumitzailearen esku epe jakin bat amaitu arte jarri ezin direnean estatuko legeriaren ondorioz, estatu kideek erabaki ahal izango dute artikuluko 1. paragrafoan finkatutako epea beste epe horretara mugatzea, kontsumitzaileak berariaz hori eskatuz gero.

3. Kontsumitzaileak atzera egiteko eskubidea gauzatzen badu, hauxe egin beharko du:

a) atzera egiteak eragina izateko, horren berri eman beharko dio mailegu-emaileari 1. paragrafoan finkatutako epearen aurretik, 10. artikuluko 2. paragrafoko p) idatz-zatiari jarraiki hark emandako informazioan oinarrituz. Estatuko legeriaren arabera frogatu daitezkeen baliabideak erabili beharko ditu horretarako. Jakinarazpena epea agortu aurretik bidaliz gero, epea bete dela ulertuko da, paperezko dokumentu baten bidez nahiz mailegu-emailearen esku jarritako eta hark erraz eskuratzeko moduko bestelako euskarri iraunkorren baten bidez egin bada jakinarazpena, eta

b) mailegu-emaileari kapitala eta kreditua eskuratzeko dataren eta kapitala itzultzeko dataren artean haren gainean metatutako interesa ordaindu beharko dio, inolako atzerapen bidegaberik gabe, eta mailegu-emaileari atzera egiteko jakinarazpena bidali eta 30 eguneko epean beranduenez. Zor diren interesak adostutako zor-tipoan oinarrituta kalkulatu dira. Mailegu-emaileak ezin izango dio kontsumitzaileari atzera egiteagatik bestelako konpentsaziorik eskatu, mailegu-emaileak administrazio publikoari ordaindu dizkion eta itzulezinak diren gastuei dagokien konpentsazioaz gain.

4. Mailegu-emaile batek edo beste inork kreditu-kontratuarekin zerikusia duen zerbitzu osagarri bat ematen badu, beste horren eta mailegu-emailearen arteko hitzarmen batean oinarrituta, kontsumitzaileak zerbitzu osagarri horri lotuta egoteari utziko dio, artikuluko honekin bat etorritik, kreditu-kontratuan atzera egiteko eskubidea gauzatuz gero.

5. Kontsumitzaileak atzera egiteko eskubidea badu 1., 3. eta 4. paragrafoei jarraiki, ez zaizkio aplikatuko ez 2002/65/EE Zuzentarauko 6. eta 7. artikuluko ez Kontseiluaren 85/577/EEE Zuzentarauko —1985eko abenduaren 20koa, merkataritza-establezimenduetatik kanpo negoziatutako kontratuen kasuan kontsumitzaileei eman beharreko babesari buruzkoa<sup>(1)</sup>— 5. artikulua.

6. Estatu kideek erabaki ahal izango dute artikuluko 1-4. paragrafoak ez aplikatzea kreditu-kontratuei, kontratu horiek, legeak hala aginduta, notario aurrean sinatu behar badira eta notarioak berresten badu 5. eta 10. artikuluetan zehaztutako eskubideak kontsumitzaileari bermatuko zaizkiola.

7. Artikulu hau gorabehera, barne-zuzenbideko edozein xedapenek epe bat finkatzen badu hura agortu arte kontratua gauzatzen hasterik ez dagoela esanez, xedapen hori aintzat hartu beharko da.

*15. artikulua*

---

(1) L 372 EO, 1985/12/31koa, 31. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### **Kreditu-kontratu lotuak**

1. Erkidegoko zuzenbidearekin bat etorritik, kontsumitzaileak atzera egiteko eskubidea gauzatu badu ondasunak nahiz zerbitzuak emateko kontratu bati dagokionez, kreditu-kontratu lotu baten bidez behartuta egoteari utziko dio.
